# «Quand j'entends le mot culture...»

*LES difficultés du musée basque dont la presse a fait état cette semaine ne sont pas à proprement parler surprenantes. Elles ne sont pas non plus spécifiques à l'établissement bayonnais. Rares sont les musées, dont les ATP (Arts et Traditions Populaires), qui ne sont pas contraints de faire appel aux collectivités locales pour boucler leurs fins de mois.*

*Tout ce qui touche à la culture est trop souvent frappé de suspicion aux yeux des élus et du public. Il n'y a pourtant rien d'anormal à ce que la collectivité participe financièrement au bon fonctionnement d'un équipement culturel. Malheureusement, le procès d'élitisme qui est souvent instruit à l'endroit du culturel nourrit une grande méfiance vis-à-vis de l'intervention de la collectivité en la matière. La culture serait l'affaire d'une élite intellectuelle et de gens aisés qui n'ont qu'à débourser s'ils veulent en consommer.*

*Il est étonnant que l'objection ne soit jamais soulevée lorsqu'il s'agit de financer des équipements de stations de ski qui ne s'adressent pourtant qu'à un petit nombre de privilégiés. Ou encore, lorsqu'on subventionne sans compter les entreprises de spectacle sportif que sont les clubs de sports professionnels et qui ne concernent que quelques milliers de personnes, toujours les mêmes, qui assistent aux matchs. Et l'on pourrait multiplier les exemples.*

*L'audit en cours, s'il est correctement mené, nous instruira davantage sur les causes des difficultés du musée. La fréquentation est largement en deçà des attentes exprimées lors de l'ouverture du musée rénové et ne cesse de baisser, nous dit-on. Mais est-ce vraiment une surprise dans le désert culturel qu'est devenue la ville de Bayonne?*

*Un équipement culturel de la valeur du musée basque ne peut donner sa pleine mesure que dans le bouillonnement d'une vie culturelle riche, dans un environnement dynamique et créatif qui rend la culture accessible au plus grand nombre et donne aux gens l'envie d'en consommer. A l'exception de quelques expositions au musée Bonnat ou de quelques concerts dominicaux du conservatoire ou de spectacles de la Scène nationale, que reste-t-il à Bayonne en matière d'activité culturelle?*

*Tout les spectacles ont émigré vers Biarritz et la Gare du Midi. Les Chimères sont à Biarritz. Le Ballet, qui se produit ces jours-ci sur la scène new-yorkaise, le FIPA, le Latino, plus récemment l'ouverture du conservatoire de danse, de l'Atabal, l'événement culturel est en permanence à Biarritz, pas à Bayonne. Sous l'impulsion de l'ancien adjoint à la culture que nous connaissons bien à ce journal, la municipalité miarriztar a compris tout l'intérêt d'un investissement fort en matière culturelle.*

*Pour mesurer l'état d'abandon culturel désolant de Bayonne, il suffit de constater qu'il a fallu l'esprit d'entreprise et la foi de jeunes inconscients pour relancer, sans argent ni subvention, un festival de jazz populaire à Bayonne, après l'arrêt du conventionnel et guindé Jazz au Remparts. La prochaine ouverture du théâtre rénové va-t-elle modifier le cours des choses? On en doute, tant le vide installé est immense. La dynastie Grenet qui a laissé faire et qui, de surcroît, pour des raisons de trajectoire politique personnelle, a refusé à Bayonne des outils de développement tels qu'une préfecture ou une université autonome, porte une lourde responsabilité dans le désastre. Des effets d'annonce, certes, tel le fameux village culturel, mais, au-delà, rien!*

*Alors, dans cette jachère, quels sont les moyens d'assurer au musée basque, au demeurant beau et riche, l'avenir qu'il mérite? Une intervention concertée de la ville, de la CABAB et du département pour maintenir l'équilibre financier? Assurément. Mais ce sera insuffisant si on n'inscrit pas, à sa juste place, le fonctionnement du musée dans une politique culturelle coordonnée, au moins, entre les trois villes et si on ne se donne pas les moyens de le faire connaître dans le bassin de population le plus proche, à savoir en Hegoalde.*

*L'eurocité n'est qu'un slogan dans la bouche de certains élus qui l'utilisent au gré de leur intérêt du moment. Si l'on veut vraiment donner une traduction concrète aux mots dont on se gargarise, n'a-t-on rien d'autre à proposer aux citoyens d'outre-Bidassoa que les supermarchés du BAB?*

*Dans le cadre d'une offre culturelle variée et attractive, le musée pourrait être un excellent atout. Encore faut-il avoir la volonté de travailler en commun, remettre l'imagination aux commandes, renouveler les équipes, se donner les moyens financiers de la réussite. On ne crée pas une dynamique culturelle dans l'immobilisme. S'ouvrir au sud exige en premier lieu que l'euskara ait sa place à la maison Dagourette. Mais est-ce bien raisonnable d'attendre de l'initiative de la part d'esprits aussi figés que certaines figures du musée dont le regard fixe se perd dans les eaux qui s'écoulent sous le pont Marengo?*

# Lanaren lekuz aldatzeaz

**JOAN den azaroaren 24ko *Enbatan*, gomitatzen gintuzten enpresen *«deslekutzeari»* buruzko hausnarketan parte hartzerat. Pilota punpean hartuz hasi naiz zerbait idatzi beharrez eta orrialde erdi hau eskaini didate. Esker mila. Gai hau arras egungoa dugu, baina erran dezagun ere korapilatsua dela... Lanaren lekuz aldatzeari, bi maila ikusiko nizkioke. Batetik: *«enpresa osoaren lekuz aldatzea»*, hau gero eta gehiago gertatzen dena, ekonomiaren globalizazioak bultzaturik. Baina bada ere: *«Produktu bat edo bertze, herrian berean fabrikatzeko orde, lan kostuak apalago diren beste herri batean eginaraztea»*. Hau ez da hainbeste sentitzen baina, luzaroan eta jokabidea hain zabaldua denez, ondorio ber-berak ditu.**

**Orain ikus daiteke enpresari bat, lehen lantegi oso batek egin zezakeen bezainbat salmenta lortzen, ofizinako langile bakar batekin, probetxuak emendatuz araberan. Lantegiaren beraren lekuz aldatzeak badakigu langileen kanporatzea dakar beti. Hau da denek ikus dezaketen kasua, argi eta garbi, lanpostuak milaka galarazten baititu, ageri-agerian. Gure bizi moldean, kontraesanetan gabiltza: alde batetik langile eta bestetik kontsumitzaile gisa. Saltoki handietan beti merkeena erosiz —puska nundik datorren behatu gabe— kritikatzen dugun lanaren herriz kanpo eginarazte horren bi moldeak zuzenesten ditugu.**

**Produkzioaren parte bat kanpoan egitea erabakitzeko orduan, besteak beste, arrazoin hau beti entzuten da zuzendaritzaren ahotik: *«Ez da bestela egiten ahal enpresa salbatzekotan»*. Eiki, ez da dena gezurra arrazoinamendu hori eta, beren lanpostuak hunkiak ez direno, langileek ere onartzen dute ofizio bereko beste erkideetaz batere kezkatu gabe. Denek ezagutzen dugun etsenplu bat har dezagun: Normandian, Moulinex famatuaren kasua. Langileak kezkatu eta kexatu dirateke azken mementoan, lanpostuak kendu dizkietelarik. Baina, duela hamar bat urte, zenbat ziren asaldatu zirenak, Moulinex, prentsa lanak Txinan eginarazten hasi zelarik, inguruko moldiztegi batzuk kinka larrienean zaudelarik jadanik Singaporeko edo Taiwangoeri ezin ihardokiz. Eta ez uste ukan gero gu hobeki gabiltzanik Euskal Herrian! Estatuen arteko mugazergak ezabatu arau eta diru kontuetan hasiz gero, iduri du erkidetasuna eta elkartasuna ahultzen direla arrunt.**

**Atzarririk eta erne egon beharrean, frango ezazol gaude beraz, anitzetan, guhaur, hunkituak ez giren ber, ez-ikusiarena edo ez-jakinarena egiten baitugu... Gure lanaren eraginkortasuna bilatzeko orduan ere, alta, ez gabiltza anitz hobeki, laster uko egiten baitugu atzerritarren konkurrentziari ihardoki behar litzaiokeenean ere. Aldaketa handien aro huntan, ez gaitezen sobera fida modari eta teoria ekonomiko sinpleegieri. Fenomeno gogor horri buruz behin betiko ikuspunturik eskaini ezinean, bertze oharpen batzuk ere egin nahi nituzke, nahiz enpresa deserriratzearen beraren gaia gainditzen duten:**

**— Herri aberatsetan, lanpostu eta jakitate tekniko asko galtzen ari gira eta, alderantziz, lanpostu eta jakitate tekniko asko irabazten ari dira, duela guti, pobre eta gibelatuak ziren herri zonbaitetan. Probidentziak ez ote die ematen guhaurek egin akatsez baliatzeko aukera?**

**— Orain goiti ari diren herri horiek, lan errex edo balio erantsi gutikoetan mugatuko direla, guri utziz lan irabazi handikoak, horren pentsatzea ere astakeria da. Airbus-ak eta zentral nuklearrak, gu bezala, egiteko gai izanen dira laster. Heiekin denetan zein gehiagoka ari beharko dugu.**

**Hortakotz oinarrizko beharrak ekoiztea abandonatu baino lehen sakon gogoetatu behar ginuke. Ororen gainetik, aldatu behar dugu gure ekoizpenaren eta industriaren alderako funts eskasa, utzikeriaren seinalea baita parte handi batean! Aldaketa ikaragarri horiek ondorio sozial eta politiko handiak dituzte jadanik gure inguruetan. Baina ez da dena galdua. Bilatuz gero, nahi izanez gero, bada leku zerbaitetan jokatu nahi duenarentzat. Guri dago, orain arte egin dugun baino hobeki egoera hausnartzea, hortzez eta haginez lotzeko gero sail batzueri, gure balore eta helburuen gauzatzeko gisan.**

**B. Castorene**